

EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA

GENEROAREN ARABERAKO
ERAGINAREN EBALUAZIOA

LANDA-GARAPENA
ETA NEKAZARITZA



2012



EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

AURKIBIDEA

1. TESTUINGURUA	4
2. GENERO-ERAGINA EBALUATZEKO AZTERTU BEHARREKO FUNTSEZKO ALDERDIAK	6
2.1. EMAKUMEEN ETA GIZONEN PRESENTZIA SEKTOREAN	6
2.2. BALIABIDEAK ESKURATZEKO DESBERDINTASUNAK	9
2.3. EMAKUMEEN ETA GIZONEN PARTE-HARTZE DESBERDINA .	17
2.4. GIZARTE-ARAUEN ETA BALIOEN ERAGINA	21
2.5. BERDINTASUNAREN ALORREKO AGINDU ESPEZIFIKOAK ...	23
3. LEGEDIA	26
4. DATU-ITURRIAK.....	27
5. ERREFERENTZIA-AGIRIAK	30

1. TESTUINGURUA

Lehenengo sektorean askoz gizon gehiago dago emakumeak baino, hori baitu ezaugarrietariko bat. Hala, emakumeek historikoki nozitutako diskriminazioa islatzen da emakume nekazari eta abeltzainen gaur egungo egoeran. Nahiz eta ustiatetikiko titularrak diren emakumeen kopurua handitu den, proportzioan, oraindik ere desorekatuta dago kopuru hori. Desberdintasun hori, ordea, ez dator bat emakumeek nekazaritza-ustiatetiketan egiten duten benetako lanekin. Izan ere, askotan gertatzen da lan horiek ez direla ikusten, eta emakumeek ustiatetikiko titulartasuna ez dutenez, titulartasunari atxikitako eskubide guztiak galtzen dituztela. Orobat, oso egoera eskasa dute emakumeek: lanaldi partzialak eta aldi baterako kontratuak, eta, horrenbestez, diru-sarrera txikiagoak eta horrekin batera doan egoera ahulagoa pobrezia-arean.

Gainera, lan-banaketaren eredu tradizionala ere aintzat hartu behar da landa-eremuan, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun handiak sortzen baititu. Emakume baserritarrek jarraitzen dute beren gain hartzen etxeko zein zaintza lanak, eta, kasu askotan, beste inorekin partekatu gabe.

Lan-arloan segregazio nabarmena dago, bertikala zein horizontala. Segregazio bertikala, gizonak erantzukizun eta prestakuntza handiagoko lanpostuetan izaten direlako. Segregazio horizontala, berriz, emakume gehienek zerbitzu-sektorean egiten dutelako lan, eta gizonak, berriz, oreka handiagoz banatzen direlako jarduera-sektoreetan.

Bestalde, emakumeen partaidetza nekazaritza-arloko erabaki-organoetan gizonena baino askoz murriztagoa da.

Beste alde batetik, nekazarien lan-arriskuak prebenitze aldera, arreta gizonen osasunari kalte egin diezaioketen kontuetan jarri da, eta ondoren haien ondorioak guztientzat orokortu, emakume zein gizonentzat. Horrela jokatzek, ordea, kasu askotan ekar dezake proposatutako neurri eta material prebentiboek ez erantzutea emakumeen benetako premiei.

Baserritar gazteen egoerari dagokionez, oraindik ere badaude desberdintasunak sexuen artean denbora-banaketari dagokionez, baita nekazaritza-ustiatetiketan lanean sartzeko aukerei dagokionez ere, besteak beste.

Horrenbestez, beharrezkoa da jarraitzea lanean landa-eremuko emakumeen eta gizonen egoera desberdinaren berri izateko, eta nekazaritza-arloan espezifikoki, hantxe areagotzen direlako desberdintasunak. Emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasuna lortzeko abian jarritako politikak eta neurriak gorabehera, oraindik ere berdindu beharreko alde handiak daude. Horregatik aurrera egiten jarraitu behar da, berdintasunak erabat gainditzen laguntzen duten politikak diseinatuz eta berdintasuna bultzatzeko neurri espezifikoak ezarriz.

Ilido horretatik, garrantzitsua da indarrean dauden berdintasunari buruzko legeek ezarritako mandatuak bete daitezela sustatzea, mandatuok orokorrak zein espezifikoak izan. Orokorrak emakumeen ahalduntzeari, balioen aldatetari eta arlo horretan garatzen diren programetan eta jardueretan genero-ikuspuntua sartzeari buruzkoak dira. Espezifikoek, berriz, helburu hauek dituzte funtsean: emakumeak ustiategiko titularrak edo titularkideak izan daitezela sustatzea; emakumeek landa-eremuan egiten duten lana errazteko lan-jarduerak bultzatzea; mendekotasunen bat duten pertsoneri laguntzeko gizarte-zerbitzuen sare bat garatzea, landa-eremuan lana, familia eta norberaren bizitza bateragarri egiteko baliabide gisa; eta emakume nekazariaren estatutua garatzea, landa-eremuko emakumeentzat sustatu beharreko jarduerak arautze aldera.

2. GENERO-ERAGINA EBALUATZEKO AZTERTU BEHARREKO FUNTSEZKO ALDERDIAK

2.1. EMAKUMEEN ETA GIZONEN PRESENTZIA SEKTOREAN

Emakumeen portzentajea landa-eremuan (% 48) hiri-guneetakoa baino txikiagoa da (% 50,8). Izan ere, "*Diagnóstico de la Igualdad de Género en el Medio Rural*" azterlanaren arabera, landa-eremuan gero eta gizon gehiago bizi da. Emakumeek landa-eremuetatik emigratzeko joera handiagoa dute. Normalean horren arrazoitzat jotzen da haientzat lan-aukera urri izatea eta beste aldagai batzuen eragina, hala nola: oraindik esleitzen zaizkien estereotipoak, besteak zaintzeko beharra, lanaldi luzeak, gizarte-presioa, kasu gehienetan partekatzen ez diren etxeko ardurak eta emakumeen lana ekonomikoki, profesionalki eta sozialki aitortua ez izatea eta haien bizilagunak, gizonezkoak, hain eboluzionatuak eta irekiak ez izatea.

Adinen arabera, gizon gehiago daude 65 urteko talderaino, hau da, adin horretatik beherago landa-eremuetan gizon gehiago daude, emakumeak baino, adin-tarte guztietan. Eta, aitzitik, 65 urtetik gora, zenbat eta zaharrago, orduan eta emakume gehiago. Nolanahi ere, hiri-eremuetan eta estatu osoan baino askoz emakume gutxiago daude (hemengo landa-eremuetan, 65 urtetik gorakoen artean, 100 gizoneko 125 emakume daude, eta Estatuan, berriz, 135).

Horrela, "*Emakumeak landa-ingurunean. 2011*" azterlanaren arabera, ohikoena ez da hiru belaunaldi batera bizitzea etxe berean, eta, aitzitik, bakarrik bizi diren 65 urtetik gorako emakumeen kopurua nabarmentzen da: guztietatik, % 13 bakarrik bizi da. Eta bakarrik bizi diren 65 urtetik gorako emakumeen ia % 25 biztanle-gunetatik kanpo bizi da, horrek dakarren isolamendu handiagorekin.

Jatorriari dagokionez, nekazaritza-jardueraren bat garatzen duten emakumeen % 83 nekazari-familia batetik dator. Gainerakoetatik, hau da, nekazari-familia batetik ez datozenetatik, % 32 landa-eremutik dator, eta gainerakoak hiri-eremutik.

Jarduera-sektoreak sexuaren arabera banaketak erakusten digunez, emakume gehienek zerbitzu-sektorean egiten dute lan, gizonak baino askoz portzentaje handiagoz (emakumeen % 87,6 ari da zerbitzu-sektorean, eta gizonen % 53,6). Industrian eta lehenengo sektorean, berriz, gizonekoak nagusitzen dira.

	Emakumeak	Gizonak
Nekazaritza	% 0,8	% 1,6
Industria	% 10,1	% 32,6
Eraikuntza	% 1,5	% 12,2
Zerbitzuak	% 87,6	% 53,6

Emakundek egina, Euskadiko Emakumeen eta Gizonen Egoerari buruzko Zifrak: 2011 txostenetik abiatuta.

Jarduera-sektoreei dagokienez, "Emakumeak landa-ingurunean. 2011" azterlanaren arabera, **landa-gunearen** eta hiri-gunearen arteko alde bat da, hain zuzen, landa-gunean enplegu gutxiago daudela industrian eta gehiago nekazaritzan. Zerbitzuen sektorean, berriz, oso antzekoa da enpleguaren egoera landa zein hiri guneetan. **Emakumeen** % 69k zerbitzuen sektorean dihardu (hezkuntzan, bulegoetan, dendetan, herri-administrazioan eta zaharrei laguntzen), % 19k lehen sektoreari lotutako lanetan, eta % 13k, aldiz, industrian.

Enplegu bat duten **gizon** gehienak ere zerbitzu-sektorean aritzen dira, enplegu guztietatik % 35 badira ere. Landa-eremuan, industria, funtsean, gizonen lana da, haientzat % 35era heltzen baita. Datu horietan lan-merkatuaren ezaugarrietako bat islatzen da: enpleguen banaketa klasikoa sexuen arabera. Gizonen % 14k nekazaritzan egiten du lan, eta horietatik 26 eta 39 urte bitartekoak dira % 40.

Nekazaritzan aritzeari dagokionez, emakumeen % 19k du nekazaritza jarduera nagusitatzat, edo nekazaritza edo abeltzaintzako produktuak eraldatzeari lotutako zereginen bat.

Nekazaritzari lotutako lanen bat duten emakume guztien artean, % 56k autokontsumorako jardueraren bat du etxean; % 20, diru-sarreraren zati txiki bat ustiatetik lortzen duten familia batetik dator, eta % 24 soilik, diru-sarrera guztiak edo gehienak ustiategi batetik lortzen dituzten familia batetik.

Adinen arabera ere aldeak daude. Izan ere, nekazaritzako jardueraren bat aurrera eramaten duten emakume gazteen artean, % 77 bizi da diru-sarrera

gehienak jarduera horietatik lortzen dituzten etxeetan. Aitzitik, nekazaritzako jardueraren batean diharduten 65 urtetik gorako emakumeen artean, % 20 soilik dago egoera horretan.

Orobat, adinen arabera, 55 urtetik gorakoen artean dago emakume nekazarien portzentajerik handiena. Aldi berean, nabarmentzen da gazteen taldean (15 eta 25 urte bitartekoak), nekazaritza-jardueraren bat duten emakumeen proportzioa hurrengo adinekoren taldean (26 eta 39 artekoak) baino handiagoa dela, seguru aski gazteenek amaren eta/edo aitaren etxean laguntzen dutelako, eta bigarrenak, berriz, independizatu direlako edo ustategiarekiko lotura galdu dutelako.

Gizarte-babesaren eta enpleguari lotutako eskubideen falta bereziki nabarmena da nekazaritzan eta abeltzaintzan diharduten emakumeen kasuan. Izan ere, titularitatea eta titularitate partekatuaren aitortza eta haiei lotutako eskubideak lortzeko bidea ez da erraza izan. Kontu hori aztertuko dugu, hain zuzen, baliabideei buruzko atalean.

2.2. BALIABIDEAK ESKURATZEKO DESBERDINTASUNAK

Heziketa eta prestakuntza: Prestakuntza-mailei dagokienez, "Emakumeak landa-ingurunean. 2011" azterlanaren arabera, adinaren araberrako aldeak ikusten dira, baina ez, ordea, sexuaren araberrakoak. Landa-eremuko emakume guztietatik, % 13k bakarrik ez dauka ikasketarik, eta horietatik % 95 baino gehiago 55 urtetik gorakoak dira. Gazteagoen artean, nabarmentzen da unibertsitate-mailako ikasketak dituzten edo egiten ari diren 39 urtetik beherako emakumeen portzentajee: % 40 inguru.

Beste alde batetik, askoz emakume gutxiagok, gizonen baino, egiten ditu nekazaritza-arloko ikasketak, seguru aski oraindik "gizonek egiten duten" lanarekin lotzen delako, eta ez dituztelako benetako lan-aukerarik arlo horretan. Alde horretatik, 2009/2010 ikasturtean, nekazaritza-jardueren maila ertaineko tituluan matrikulatutako ikasleen artean, % 24,7 emakumezkoa zen, eta % 75,3, gizonezko; eta, goi-mailako titulazioan, berriz, % 26,9 eta % 73,1, hurrenez hurren. Ondoren azaltzen dira nekazaritza-jardueretako maila ertaineko eta goi-mailako ikasketetako matrikulazioaren datuak, azken 3 ikasturtekoak:

	Gratu ertaina		Goi-mailako gradu	
	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak
2007/2008	% 29,2	% 70,8	% 24,6	% 75,4
2008/2009	% 28,9	% 71,1	% 26,2	% 73,8
2009/2010	% 24,7	% 75,3	% 26,9	% 73,1

Emakundek egina, Emakumeen eta gizonen 2008ko egoerari buruzko zifrak txostenetik abiatuta.

Enplegua: Emakume aktiboaren portzentajee EAEn % 46koa da, baina landa-eremuan, berriz, % 53koa (enplegu ordaindua duten emakumeak eta langabezian daudenak). Gizonena baino portzentaje txikiagoa da; izan ere, landa-eremuko gizonen jarduera-tasa % 64koa da, EAEko batez bestekoaren antzekoa.

Gazteagoen artean, batez ere 26 eta 39 urte bitarteko emakumeen artean, emakume aktiboaren portzentaje % 89koa da, eta gizonena % 97raino heltzen da; izan ere, adin tarte horretan sexuen arteko aldeak dauden arren, gutxitu egiten dira.

Beste alde batetik, **nekazaritza enplegua duten biztanleen** % 28,2 emakumea da, eta % 71,8 gizona.

Langabeziari dagokionez, portzentajea % 6koa da emakumeen artean, eta % 1,5 haien bikotekideentzat. Ordaindutako enpleguen ezaugarriei dagokienez...

- EAEn enplegu ordaindua duten emakumeen % 21ek **lanaldi partziala** du, eta, horrenbestez, enpleguari, independentzia ekonomiko eta lantokian sustatzeko aukerei lotutako eskubide gutxiago sortzen dituzte. Bestalde, lanaldi partziala egiten duten bikotekideen portzentajea % 3koa da. Bikotekide duten emakumeen kasuan, lanaldi partzialaren portzentajea % 31raino heldzen da. Alde horretatik, lanaldi partzialeko kontratuak lan-estekatasuna azaltzen du, pertsonaren independentzia ekonomikoaren maila ezartzen ditu, eta gaur zein biharko aukerak mugatzen (pentsio txikiagoa kobratzeko eta lan-sustapenerako aukera gutxiago). Estatuan, «Diagnóstico de la Igualdad de Género en el Medio Rural» azterlanaren arabera, landa-eremuan lana duten emakume guztietatik, % 23,4k lanaldi partziala du, eta gizonen %5,3k.
- Emakumeen enpleguaren beste ezaugarrietariko bat da **Gizarte Segurantzari kotizatzen ez duten emakumeen** portzentaje handia: EAEko landa-eremuko emakumeen % 12. Estatuan, lana dutenen %2k bakarrik adierazten du ez duela kotizatzen Gizarte Segurantzari. Horietatik, % 65,5 emakume da, eta % 34,5 gizon, alegia, ezkutuko ekonomian, emakumeak dira nagusi.
- **Besteren konturako lana:** EAEko emakume gehienek besteren kontura egiten dute lan (% 75ek). Horrela lan egiten duten emakumeen bikotekideen portzentajea, berriz, ez da % 42koa baino handiagoa. **Kontratu-motaren** arabera, Estatuan, emakume ugariaren egoera hau da: aldi baterako kontratua edo kontratu finko etena izatea, edo kontraturik ez (egoera horretan, % 42,4, % 50,8 eta % 40,7 emakume dago, hurrenez hurren). Baliteke lehenengo kontratu-mota horiek izatea landa-eremuko emakume ugarietako jakin batzuetan lan egiten dutelako, horrela gertatzen baita, esaterako, nekazaritzako elikagaien industrian, ehungintzakoan eta nekazaritza-turismoarekin lotutako jardueretan. Gainera, landa-eremuko emakume askoren lana ekonomia informalean sartzen da, eta betiere kontraturik gabe, nekazaritzako ustategietan familiari laguntzen, esaterako. Emakumeen artean lan prekario gehiago dago.

Bestalde, emakumeak lan-merkaturatzeak berez sortzen ditu lanpostuak. Emakumeak lanetan hasteak berarekin batera dakar beste emakume batzuk kontratatzea, sektore pribatuan zein publikoan (haur eskolak, ludotekak, eguneko zentroak, eta abar).

Orobat, Nekazaritza, Elikagai eta Ingurumen Ministerioaren *Diagnóstico de Igualdad de Género en el Medio Rural (2011)* argitalpenaren arabera, landa-eremuko emakumeak lan-merkatuan sartzeko bideak oso ezaugarri espezifikoak ditu. Ezaugarri horiek nabarmentzen ari dira azken hogeitau urteotan, eta kontu hauetan zehazten dira:

- Desoreka, lan-sektoreei dagokienez, gehiegi pilatzen baitira zerbitzu-sektorean (lan ordaindua duten emakumeen % 78,5 dago eta gizonen % 41), nekazaritza-sektorean, berriz, % 7 baino ez dira.
- Emakume soldatadunen proportzio handia (% 72,5), gizonekin konparatuta (% 57,5). Emakume autonomoak eta enpresaburuak, berriz, % 20 baino ez dira. Lan ordaindua duten gizonen artean, % 41,7 enpresaburua da, eta soldatapekoa, % 73,2.
- Prestakuntza-maila handia: lan ordaindua duten 10 emakumeetatik bik goi-mailako ikasketak ditu (gizonen artean, berriz, hamarretatik bat). Landa-eremuko emakumeek prestakuntza-maila handia dute, eta, era berean, hirugarren sektoreko enplegu kualifikatua emakumeek betetzen dute: tokiko garapeneko agenteak, al baitariak, eta abar.
- Emakumeen lan ordaindua oso polarizatuta dago, eta bi aurkako muturretan pilatzen da, prestakuntza, egonkortasun, ordainketa eta balorazio sozialari dagokienez.

Gizarte-babesaren eta enpleguari lotutako eskubideen falta bereziki nabarmena da nekazaritzan eta abeltzaintzan diharduten emakumeen kasuan. Izan ere, titulartasunaren eta titulartasun partekatuen aitortza eta haiei lotutako eskubideak lortzeko bidea ez da erraza izan. Gaur egun, nekazaritza-lanetan dabilzan emakumeen % 26k esaten du ustiategiko titularra dela eta % 16k, titulartasun partekatua daukala.

Gainera, proportzioan, askoz emakume gutxiago daude, gizonak baino, nekazaritza-ustiategi titular zein ustiategiko buru, eta inoiz ez % 40 baino gehiago, kopuru hori jotzen delarik gutxienez ordezkaritza orekatsua dela ulertzeko.

	Emakumeak	E %	Gizonak	G%	Guztira
Ustiategiko titularrak	5200	% 33	10466	% 67	15666
Ustiategiko buruak	4873	% 32	10231	% 68	15104
Guztira	10073		20697		30770

Emakundek egina, INEren datuetatik abiatuta.

Nekazaritza-ustiategien tamainari eta emakumearen partaidetzari dagokionez, *El libro blanco de la Agricultura y el Desarrollo Rural. Las mujeres en el sector agrario y en el medio rural español* ikerketaren arabera, ustiategi txikietan daude emakume titular gehiago: emakume

titularren % 47,5en ustiategiak 2 hektareakoak baino txikiagoak dira, eta titularra emakume dituzten ia % 70 ustiategiak 5 hektareakoak baino txikiagoak. Beste muturrean, alegia, 50 hektarea baino gehiagoko ustiategietan, emakume titularrak ez dira guztizkoaren % 3ra ere heltzen. Europar Batasuneko beste eremu batzuetan ere jaso da ustiategien eta emakumearen lanaren arteko erlazioa. Hala, emakumeak buru duten ustiategiak ekonomikoki askoz ere apalagoak dira gizonen zuzentzen dituztenak baino.

Nekazaritza-inguruneko familia-ustiategiaren eremuan, emakume ugari partekatzen ditu gizonekin nekazaritza-lanak, lan horien parte handia beren gain hartuta eta ondasunak zein lana eskainiz. Dena den, kasu gehienetan gizon bakarra agertzen da nekazaritza-ustiategiaren titular gisa, eta horrek zailtzen du behar bezala aintzat hartzea emakumeen partaidetza ustiategiaren kudeaketatik ondorioztatzen diren eskubide eta obligazioetan berdintasun-baldintzetan.

Izan ere, titularra edo titular partekatua izateak berarekin batera dakartza eskubideak eta obligazioak, besteak beste, Gizarte Segurantzari kotizatzea. Zehazki zer erregimenetan dauden kontuan hartu gabe (nekazaritzakoa, orokorra edo autonomoena), titularrak diren edo titulartasuna partekatzen duten emakumeen % 74k dio Gizarte Segurantzari «kotizatzen» duela.¹ Inkestan lortutako ehunekoak ez datoz bat gizarte-segurantzako afiliazio-estatistikekin. Horrenbestez, baliteke informazio okerra edukitzea gizarte-segurantzari afiliatzeak dakartzen eskubide eta betebeharrei buruz: baliteke osasun-laguntza jasotzeko eskubide hutsarekin nahastea, edo familia-eskubideak sortzen dituela uste izatea; alegia, pentsatzea gizonak kotizatuz gero, emakumeak eskubide berak dituela, berak kotizatu izan balu bezala.

Azkenik, ustiategiko titularrak diren emakumeen proportzioa aldatu da % 27tik % 30era, 8 urteko epean.

Baliabide ekonomikoak eskuratzeari dagokionez, **gazteek duten egoera dela-eta**, desberdintasun berberak gertatzen dira ustiategien titulartasuna eskuratzeari dagokionez, baita ustiategiko buru diharduten emakumeei dagokienez ere. Horrela, 2006an erregistratutako 2.160 nekazaritza- eta abeltzantza-ustiategietatik, 160tan gazteek zuten titulartasuna, eta alde handia zegoen sexuaren arabera. Gazteen esku zeuden ustiategietatik, 9k emakume bat zuten titular, eta gauza bera gertatzen zen ustiategiko burujabetzei dagokienez.

Lan-osasuna: Nekazaritza-arloan lan egiten duten emakumeek, oro har, **murriztua dute lan-arriskuak prebenitzeari buruzko informaziorako sarbidea**, haietatik askok ez baitu parte hartzen informazio hori jasotzeko moduko eremuetan. Izan ere, kooperatibetan eta sindikatuetan oso partaidetza txikia dute, eta prestakuntza gutxi jasotzen dute langile gisa hobetzeko

¹ Las mujeres en el entorno rural 2004 azterlan.

eta/edo birziklatzeko, edo ez dute inolako prestakuntzarik jasotzen sektoreko profesional gisa behar diren ikasketak izateko.

Gaztela eta Leongo Juntak eginiko *Prevención de Riesgos Laborales Agricultoras y Ganaderas. Guía práctica de prevención* lanaren arabera, emakume nekazari eta abeltzainen lan-arriskuen prebentzioari dagokionez, “gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak, bai lanaren barruan zein lanetik kanpo, lan-segurtasunari eta osasunari eragiten dio, eta, historikoki, arriskuen prebentzioak gizonen osasunari kalte egin diezaioketen kontuetan jarri du arreta, haien ondorioak emakumeengan orokortuz, eta, horrenbestez, kasu askotan ezin izan ditugu baliabide horiek egoki eskuratu eta ez ditugu gure premietara egokitutako baliabiderik izan”.

Gida horretatik ateratzen da, gainera, honako hau:

Nekazaritza-sektorearekin zerikusia duten emakume gehienek oso lan-baldintza eskasak dituzte, lanaren ezaugarriak berak direla eta, besteak beste: profesionalizatzeko-maila eskasa, aitortza sozialen falta eta norbanakoaren eskubide sozial eta ekonomikoak bermatzen duen arautegi egokiaren falta.

- **Emakumeen eta gizonen lan-bizitzan alde nabarmenak daude**, eta horrek eragina dauka laneko segurtasunean eta osasunean.
 - o Alde biologikoak daude, eta behar-beharrezkoa da horiek kontuan hartzea nekazaritza- edo abeltzaintza-ustiattegian arriskuen ebaluazioa aurrera eramateko orduan.
 - o Lan-merkatuaren barruan ere egoera desberdinak daude: diskriminazio handiagoa eta baldintza txarragoak; gizartearen aitortzarik eza; lanaldi edo presentzia bikoitza eta horrek eragiten duen asebetetasunik eza, hala esparru pertsonalean nola profesionalean.
 - o Gehienbat emakumeek egiten dituzten lanek ezaugarri espezifikoak dituzte (trebetasun, malgutasun eta presa handiagoa; erantzukizun eta kualifikazio txikiagoa; jarrera behartuak, mugitzeko aukerarik eza...).
 - o Emakumeek jasaten dituzte batik bat lesioak giharretan eta hezurduran (gorputzaren jarrera ezin aldatzeagatik, besteak beste). Landa-eremuan lan egiten duten emakumeen artean, artrosia da lesiorik ohikoenetako bat. Dena den, zerbikaletako, dortsaletako eta gerraldeko minak ere ohikoak dira.
 - o Buru-osasuneko gorabeherak. Ez dira laneko gaixotasun gisa hartzen, eta are gehiago, ez dira ezta ikusi ere egiten. Emakumeen berezko gaixotasuntzat jotzen dira, eta ez denbora luzez egindako lanaren ondorioz sortutako laneko gaixotasuntzat.

- Kontuan hartu behar da laneko giroan dauden eragile kimiko eta fisikoek honako ondorioak izan ditzaketela: gizakien ugalketarako ahalmena murriztea, mutazio genetikoak, sortzetiko malformazioak eta berezko abortuak. Hain zuzen, haurdunaldia eta edoskitzaroa dira unerik arriskutsuenak.

Nekazaritzaren alorrean gerta daitezkeen sexu-jazarpenak eta jazarpen sexistei dagokienez, aski bereziak dira, landa-eremuaren ezaugarri espezifikoak eta nekazaritzaren berezko baldintzak direla medio. Izan ere, kasu askotan zaila da familiarreko harremanak eta lan-harremanak elkarrengandik bereiztea.

Landa-eremuko emakumeen eskarmentutik abiatuta osasuna aztertzen duten beste ikerketa batzuen arabera, osasun-kontuetako oztopoetariko bat da ez dela erantzukizuna partekatzen, alegia, emakumeek ia zainketan guztiak hartzen dituzte beren gain.

Denbora-banaketa: Emakume eta gizon nekazarien arteko desberdintasunak ikusteko, eta, oro har, nekazaritza-eremuko emakumeen eta gizonen artean dauden desberdintasunak ulertzeko ezinbestekoa da aztertzea nola banatzen duten batzuek eta besteek denbora.

"Emakumeak landa-ingurunean. 2011" azterlanean jasotako datuen arabera, emakume batek 62,7 ordu ematen du astean lanean, hau da, bere denboraren % 81 (lan ordaindua, etxeko lana eta zainketa-lana), eta 11,6 ordu, bere kontuetarako (aisialdia); haien bikotekideek, berriz, 55,9 ordu ematen dute lanean, hau da, denboraren % 73, eta 17 ordu, beren gauzetarako.

Funtsean emakumeek eginiko lanak dira etxekoak eta zainketakoak. Zehazki, emakumeen denboraren % 56 hartzen dute lan horiek, eta gizonen denboraren % 27. Bestalde, etxetik kanpoko lanetan denboraren % 24 ematen dute emakumeek, eta beren bikotekideek, aldiz, % 45. Orobat, nekazaritza-ustategietan lanak egiten dituztela dioten emakumeen %40k dio, aldi berean, ez duela inolako lanik egiten etxetik kanpo, eta, horrenbestez, ustategian ematen dituzten lan-orduei etxeko lana gehitu behar zaie kasu askotan.

Hala, lanaren sexuaren araberako banaketa kontzeptua aurkitzen dugu: emakumeek jarraitzen dute hein handiago batean etxearekin lotutako lanak egiten, eta gizonek batez ere etxetik kanpoko lanak betetzen. Ildo horretatik, sexuaren araberako esleipen tradizionaletik, familia eta etxea zaintzeko lanak emakumeen esku geratu dira beti, eta horrek baldintzatu ditu eta jarraitzen du baldintzatu emakumeon kontu guztiak, lan-merkatura sartzearekin gertatzen den bezala.

Gidatzeko baimena eta autoa: Landa-eremuan mugitzeko eta autonomo ibiltzeko aukerak zuzenean lotuta daude norberaren autoa eta gidatzeko baimena izatearekin. Emakumeen % 65ek gidatzeko baimena dauka, eta gehienek erabiltzen dute normalean auto pribatua. Adina garrantzitsua da; 26 eta 54 urte bitarteko emakumeen ia 90ek gidatzen baitu normalean. Gidatzeko baimena izanez gero, herritik kanpo jarduerak egiteko aukera egoten da garraio publikoa erabili beharrik gabe, hautatzeko aukerak zein autonomia pertsonala erraztuz.

Ilido horretatik, auto pribatua da emakumeek gehien erabiltzen duten garraiobidea lantokitik mugitzeko (% 62,9), nahiz eta gizonak gehiago erabiltzen duten (% 75,8). Aitzitik, emakumeak oinez eta garraio publikoan mugitzen dira.

«Emakumeak eta osasuna EAEko landa-eremuan» ikerketaren arabera, garraio pribatu (autoa) maiz badarabilte ere, emakumeen % 35ek uste du garraio publikoa hobetzea ekimen garrantzitsuetariko bat dela, herriak aurrera egin dezan. Kontu batzuk, ordea, arazo-iturri dira zona guztietan: esate baterako, emakume gazteenek uste dute asteburuetan ez dagoela garraio publiko nahikorik, eta eskola-umeak dituzten emakume askok, berriz, salatzen du ez dagoela garraio egituraturik derrigorrezkoa ez den heziketako zikloetarako. Era berean, kezka nabarmena dute adindunen egoera dela-eta, zaharrek ez baitute aukeratik leku batetik bestera beren kabuz joateko, eta, emakumeen ustetan, ez dago egoera hori saihesteko behar beste zerbitzurik.

Ekipamenduak eta zerbitzuak: Eguneroko bizitzarako beharrezkoak diren azpiegiturak eta oinarrizko zerbitzuak landa-eremuko herritarrengandik gertu daude normalean

Emakumeen egoera landa-eremuan aztertzen duen ikerketaren arabera, hauek dira ia gune guztietan dauden ekipamenduak: osasun-zentroak, eskola-garraioa, lineako autobusak eta tabernak, kafetegiak edo jatetxeak, eta haien presentzia % 90koa edo hortik gorakoa da. Hona elkarriketatutako emakumeen 2/3 baino gehiagok gertukotzat jotako zerbitzuak: haur-eskolak, lehenengo mailako irakaskuntza, kultura-gela, botikak eta janari-dendak.. Hona emakumeengandik 15 minutu baino gutxiagora dauden instalazioak: eguneko zentroak, eskolatik kanpoko jarduerak, kirol-instalazioak, zahar-egoitzak, taxia eta supermerkatuak. Azkenik, neurri txikiago batean eskuragarri dauden ekipamenduak hauek dira: tren-geltokiak, bigarren mailako irakaskuntzako zentroak, ludotekak, anbulantzia medikalizatua eta komertzio espezializatua.

Emakumeak eta osasuna EAEko landa-eremuan ikerketaren arabera, ekipamendu eta zerbitzu jakin batzuk eskuratzeko zailtasunen ondorioz, gehien bat pertsonen zainketaekin zerikusia duen guztia eskatzen da, eta hori oso lotuta dago generoaren araberako lan-banaketa tradizionalak oraindik indarrean egotearekin, banaketa horri jarriki emakumeek parte

hartze handiagoa baitute etxeko lanetan eta mendekotasuna duten pertsonen zainketa lanetan.

2.3. EMAKUMEEN ETA GIZONEN PARTE-HARTZE DESBERDINA

Emakumeen partaidetza erabaki-organoetan gizonena baino askoz murriztagoa da, bai nekazaritza-garapenarekin zerikusia duten kontuetan, baita zehazki nekazaritza-arloko erabakiak hartzen direnetan ere. Esan daiteke, beraz, gizonen eta emakumeen ordezkartza ez dela orekatsua.

Dena den, nabarmendu behar da badagoela **Landa Eremuko Emakumeen Batzordea**. Bultzatzen du taldea Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak eta parte hartzen dute:

- Landa Eremuko Emakumeen Elkarteak: Landa XXI, Red de Mujeres del Medio Rural de Álava, Gure Soroa eta Hitzez Baserriko Emakumeen Elkartea.
- Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiak
- Emakunde
- Hazi eta Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila.

Batzorde honen oinarritzko helburua da emakumeen eta gizonen berdintasuna bultzatzea landa eremuan. Horretarako, hilabetean behin batzartzen dira eta ekintzak proposatzen dituzte. Azken urteetan, ekizta horiek ahalduz (autonomia pertsonala, baliabide ekonomikoak eta sozialak lortzea eta kontrolatzea eta partaidetza soziopolitikoak eta eragina) eta antolaketa sozial erantzukidean zentratu dira.

Kontsulta eta aholku-organoei dagokienez, erakunde batzuetan betetzen dira gizonen eta emakumeen ordezkartza orekatsua lortzeko 4/2005 Legeak ezarritako parametroak (% 40-% 60), eta guztietatik bakar batean soilik emakume bat da buru.

Organoak	Guztira	Emakumeak	Emakumeak %-tan	Gizonak	Gizonak %-tan	Batzordebu rua:
Izurri Hilkariei buruzko Arauteriaren Garapen eta Aplikazioko Batzorde Teknikoa	6	1	% 16,7	5	% 83,3	G
Euskadiko Animalien Elikadurarako Batzordea	7	3	% 42,9	4	% 57,1	G
Euskadiko Ekoizpen Intregaturako Koordinazio Batzordea	11	3	% 27,3	8	% 72,7	E
Landaberri	10	5	% 50	5	% 50	G
Landa Garapeneko Kontseilu Aholkularia	10	5	% 50	5	% 50	G
Nekazaritza eta Elikadura Politikako Batzordea	19	4	% 21,1	15	% 78,9	G

Emakume eta gizonen presentzia Euskadiko erabaki-guneetan.

Landa Garapeneko Elkarteei dagokienez, **gobernu-junteetako** partaidetzari buruzko datuak ikusita, antzeman daiteke elkarte gehienetan asko falta dela emakumeen ordezkariak orekatsua lortzeko; izan ere, haietatik bakarrean soilik emakumeak dira % 40 baino gehiago, eta beste guztietan inoiz ez % 30 baino gehiago.

Nekazaritza-sindikatuak partaidetzako beste eremu garrantzitsu bat dira. Bildutako azken datuen arabera, kasu gehienetan zuzendaritza-organoetan ez dago ordezkariak orekatuak.

- ²UAGA (Arabako Nekazarien Elkartea): de 5 personas, la vicepresidenta es mujer.
- ³ENBA (Euskal Nekazarien Batasuna): entre las vocalías hay una mujer

² UAGAREN web-orri ofizialean jasotakoaren arabera: www.uaganet.net/

³ ENBAREN web-orri ofizialean jasotakoaren arabera: www.enba.es

- 4EHNE (Euskal Herriko Nekazarien Elkartea) Konfederazioa: existen presencia equilibrada de mujeres y hombres (3 mujeres y 3 hombres)

Orobat, sektorearen **enpresa eta fundazio publikoetan** dagoen ordezkariari dagokionez, jasotako datuen arabera, kasu gehienetan emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatsua dago **zuzendaritza-organotan**:

	Emakumeak	Gizonak
Itsasmendikoi	% 41,6	% 58,4
Azti	% 42	% 58
Elika Fundazioa	% 60	% 40
Kalitatea Fundazioa	38,5%	61,5%

Landa Eremuko Emakumeen Nazioarteko Eguna zela-eta, 2010eko urriaren 15ean, egindako lan-jardunalditik sortutako testuan, hau da, Laguardiako Deklarazioan, eta landa-eremuko ehunka emakumek egindako gogoeten fruitu gisa, honako hau baieztatzen da, **emakumeek gizarlean, politikan eta ekonomian parte hartzeari dagokionez**:

- Landa-eremuko emakumeek ez dute parte hartzen berdintasun-baldintzetan landa-eremuko erabaki-arloetan, eta desberdintasunak handiagoak dira postuek aitortza handiagoa duten heinean.
- Erantzukizun partekaturik eza oztopo nagusietariko bat da berdintasunean parte hartzeko.
- Emakumeek oraindik sentitzen dute zalantzan jartzen dela haien balioa erabaki-postuetan, lekutik kanpo daudela, eta lan hori betetzerik izango ez balute bezala. Horregatik, eta emakumeen eta gizonen benetako berdintasunean aurrera egiteko, beharrezkoa da aurrez sortutako ideia horiek gaitzitzea, eta emakumeek egiten duten lana eta egiten duten ekarpena aintzat hartzea.
- Lanpostu jakin batzuetan parte hartzeko, emakumeek sentitzen dute bizitzaren aukera garrantzitsu batzuk baztertu edo atzeratu behar dituztela: amatasuna, esaterako.
- Gizonen premiak aintzat hartuta antolatuta da partaidetza erabaki-esparruetan (bilerekin, ordutegiak, eta abar). Horregatik ezarri behar dira lan egiteko modu berriak, gizonen zein emakumeen premiak kontuan hartzen dituztenak.

Azkenik, **landa-eremuko emakumeek elkarrekin parte hartzeari** dagokionez, heren bat gutxi gorabehera elkarrekin batean dago. Gehien parte hartzen duten emakumeak 40 eta 64 urte bitartekoak dira. Kultura-, arte- eta musika-arloko elkarteak dira interes handien pizten dutenak. Gainera, emakume gazteenak emakumeen elkarteetako kideak dira, besteak beste.

4 EHNEren web-orri ofizialean jasotakoaren arabera: www.ehne.org

Landa-eremuan genero berdintasuna aztertzen duen diagnostikoak aipatzen duen bezala, landa-eremuan, gizonak emakumeek baino ordubete gehiago ematen dute, astean, elkarteetan parte hartzen. Landa-eremuko emakumeen partaidetza oso mugatua da, neurri handi batean genero-erolek bere horretan dirautelako eta etxeko zein zainketa lanak ez direlako berdintasunez banatzen, eta, horren ondorioz, emakumeek lan-zama handiagoa eta lanaldi luzeagoak dituztelako. Elkarte-motaren arabera ematen den denborari dagokionez, honako datu hauek jasotzen dira:

	Elkarte profesionalak eta politikoak	Gizarte-, kultura- eta erlijio-elkarteak
Emakumeak	Ordu 1 eta 31 minutu	34 minutu
Gizonak	2 ordu eta 33 minutu	30 minutu

Ikus daitekeenez, denborarik gehiena elkarte profesional eta politikoei ematen zaie, eta alde handia dago gizonak eta emakumeek horretara ematen duten denboran.

Orobat, gizonak eta emakumeak elkarte horietan duten partaidetzari dagokionez, lehen aipatutako diagnostikoaren arabera, elkarte politiko eta profesionaletan, parte hartzen duten pertsonen % 69 gizon dira eta % 31 emakume, eta, horrenbestez, gizonak nagusi dira nabarmen. Beste alde batetik, gizarte-, kultura- eta erlijio-elkarteetan dagoen partaidetzari dagokionez, ia orekatsua da: % 59, emakume, eta % 49, gizon baitira.

2.4. GIZARTE-ARAUEN ETA BALIOEN ERAGINA

Sistema patriarkalean, emakumeak ugalketa-rolaren pean egon dira beti, eta horrek baldintzatu ditu haien bizitzaren gainerako kontuak eta gizarte-harremanak. Gizonei ekoizle/hornitzaile eginkizuna esleitu zaie, eta emakumeei, berriz, zaintzaileena.

Zentzu horretan, landa-eremuan, eta lehenengo sektorean era espezifikoago batez, oraindik ere onartzen dira zenbait estereotipo eta rol, emakume edo gizon izate hutsagatik, eta, horrenbestez, sexua dela-eta desberdintasun handiak sortzen dira.

Lehenengo sektorean, gizonek eta emakumeek zeregin desberdinak hartu izan dituzte haien gain. Emakumeek egiten dituzten lanak "familiarentzako laguntza" gisa jo izan dira, edo are gehiago, ez dira ezta nekazaritza-lan gisa ere aitortu (ustiategien administrazio-lana direla jo da). Gutxiespen horrek, beraz, zera eragin du: emakumeak bigarren maila batean egotea sektorean eta gutxiagotan izatea ustiategietako titularrak. Hori dela-eta, oso gutxi eskuratu ditu horretatik eratorritako baliabide ekonomikoak eta sozialak.

Horrenbestez, nekazaritza-esparrua gizonen sektore gisa jo izan da, eta horrek ondorio hauek izan ditu: batetik, prestakuntza jasotzen duten gehienak gizonezkoak izatea, eta, bestetik, landa-gunetik hirigunera migratzen duten gehienak emakumeak izatea. Izan ere, *Diagnóstico de la Igualdad de Género en el Medio Rural* lanaren arabera, nahiz eta egia den emakume gehiagok emigratzen duela landa-eremutik, lan-aukera gutxi daudelako haientzat, beste faktore batzuen garrantzia agerian uzten duten nahiko ebidentzia ere badago: garrantzitsuetariko bat estereotipoak dira, oraindik haien arabera esleitzen zaie emakumeei gainerako pertsonak zaintzeko obligazioa, eta, horren ondorioz, haien esku geratzen da zaharrak zaintzea; gizarte-presioa; lan-zama handia (lan produktiboa eta ugalketa-lana bateratzean); eta, horrez gain, gizonezko bikotekideak hain eboluzionatuak eta irekiak ez izatea. Hala, elementu horiek guztiek emakumeak beste horizonte berri batzuen bila joatera bultzatzen dituzte.

Kasu gehienetan jarraitzen da pentsatzen etxeko eta zainketa lanak emakumeen ardura direla, eta oraindik ere haien esku geratzen direla. Hori lan-zama da, epe ertain eta luzera jasateko zaila dena, eta sozialki bidegabekoa. Gainera, mendekotasun bat duten zahar asko daude, eta zainketa-lanak dakarren familia-zama arin zezaketen zerbitzurik ez, edo daudenak desegokiak dira: haur-eskola gutxi, edo batere ez, eta gauza bera gertatzen da eskola-jantokiekin, adindunentzako edo mendekotasun bat duten pertsonentzako egun-zentroekin eta egoitzekin. Horren guztiaren ondorioz, lan-merkatuan sartzen ahalegintzen ari diren emakumeek beraiek egiten dute ia zainketa-lan guztia familiaren barruan, eta, horrela, lan-

aukerak murrizten zaizkie (prestakuntza-aukerak, erabakitzeko eremuetan parte hartzeko aukera...). Gainera, ez zaizkie aintzat hartzen zainketa-lan horiek.

Emakume nekazariak eta landa-eremuan bizi diren emakume askoren lana ikusi eta aintzat hartu ezean, genero-ikuspegia sektorearentzat gakoak diren diagnostikoetan eta planifikazioetatik kanpo geratzen da, esate baterako, nekazarien lan-arriskuak prebenitzeko planifikazioan edo sektorean egiten diren ikerketa eta diagnostikoetatik kanpo.

2.5. BERDINTASUNAREN ALORREKO AGINDU ESPEZIFIKOAK

BERDINTASUNAREN ALORREKO AGINDUAK	ARTIKULUAK/ARAUAK
Okerren dauden emakume-taldeen gizarte-babesa eta lan-baldintzak hobetzea , batez ere lehenengo sektorean lan egiten dutenena, etxeko lanak egiten dituztenenak eta ezkutuko ekonomian lan egiten dutenena.	V.PIMH 2.1.5 helburu operatiboa
Ekipamendu eta garraio publikoari dagokionez premiak asebeteta dituztela uste duten emakume-kopurua handitzea , batez ere landa-eremuan, eta betiere kolektiboan eta beharren dibertsitatea aintzat hartuta.	V. PIMH 2.3.2 helburu operatiboa
Landa-eremua garatzea helburu duten jardueretan, emakumeen heziketa-maila hobetzerantz zuzendutako jarduerak sartzea, eta bereziki laneratzen eta enpresetako eta elkarteetako zuzendaritza-organoetan sartzen laguntzen dutenak.	3/2007 L.Oaren 30. art.
Nekazaritza eta elikadura sektoreko profesionalentzako prestakuntza-eskaintza generoaren ikuspegiaz diseinatzea , bereziki sustatuz emakumeek eta gizonen prestakuntza- eta kualifikazio- programak estereotipo sexistarik gabe aukera ditzaten.	17/2008 Legearen 70.3.h) art.
Emakumeek landa-eremuan egin dezaten laguntzen duten lan-jarduera berriak sustatzea.	3/2007 L.Oaren 30. art.
Gizarte-zerbitzuen sare baten garapena sustatzea, adingabeak, adindunak eta mendekoak artatzeko, landa-eremuan bizi diren gizon eta emakumeen bizitza pertsonala, lana eta familia bateragarri egiteko neurri gisa.	3/2007 L.Oaren 30. art.
Informazio eta komunikazio-teknologiak baliatzeko aukera-berdintasuna bultzatzea, landa-eremuko emakumei zuzendutako politika eta jarduerak erabiliz, eta irtenbide alternatibo teknologikoak aplikatzea, teknologia haiek heldu ahal diren lekuetan.	3/2007 L.Oaren 30. art.
Behar diren baliabideak jartzea ustiatzearen titular profesionalak ezartzeko, jarduera nagusia hori izanik,	17/2008 Legearen 8.a) eta 97. f) art.

<p>eta bereziki laguntzea emakumeak eta gazteak titular izan daitezzen.</p>	
<p>Nekazaritza- eta elikadura-eremuetan sustatzaile berriak ezartzera zuzendutako ekintzak lehenestea, batez ere nekazaritzan aritzen diren emakumeak eta gazteak.</p>	17/2008 Legearen 70.3 c) art.
<p>Genero-berdintasuna aintzat hartzea, eta honako oinarritzko printzipio hauek betetzea edozein jardueramota garatzerakoan:</p> <p>a) Nekazariak berdintasunez tratatzea, gizon zein emakume izan, emakumeen aldeko ekimenak egingo badira ere.</p> <p>b) Aukera-berdintasuna, landa-eremua bideragarri izateko eta bizirauteko ezinbesteko elementu gisa.</p> <p>c) Genero-ikuspegia sartzea, besteak beste, araua onartu aurretik genero-eragina baloratzea, baita generoa kontuan hartzea nekazaritza-, elikadura- eta landa-eremuko estatistika guztietan.</p>	17/2008 Legearen 74 art.
<p>Emakume nekazariaren estatutua arau gisa garatzea, kolektibo horrentzat sustatu beharreko jarduerak arautzeko, eta, inor kanpo utzi gabe, ekintza positiboak barne hartuta.</p> <p>a) Prestakuntza-programa espezifikoak ezartzea, arreta berezia jarrita teknologia berriei eta informazio-gizartearen inguruneke prestakuntzari.</p> <p>b) Familia-ustategien diru-laguntzak lehenestea eta inbertsioak kofinantzatzea, titulartasuna emakume batek hartzen duenean.</p> <p>c) Ordezkaritza-maila hobetzeko mekanismoak garatzea kudeaketa-organo publiko eta pribatuetan.</p> <p>d) Lana eta familia bateragarri egitea, haurdunaldia eta amatasuna, baimenak eta lizentziak eta familiari laguntzeko zerbitzuak kontuan hartuta.</p>	17/2008 Legearen 75 art.
<p>Hala badagokio, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean nekazaritza-kontuetan eskumena duen sailaren eta lan-arriskuen prebentzioan eskumena duen agintaritzaren arteko</p>	17/2008 Legearen 80 art.

hitzarmenak sinatzea, langileen, haien familien eta soldatapeko eta sasoikako langileen osasunerako arriskuak ekar ditzaketen faktoreei buruzko ikerketak, txostenak egiteko eta aholkularitza emateko jarduerak koordinatze aldera, **emakumeen eta gizonen osasunean aldeak sor ditzaketen faktoreak kontuan hartuta.**

OHARRA: Nekazaritza- eta landa-garapenerako berdintasun-aginte espezifikoek gain, kontsultatu behar dira berdintasunari dagokionez sektore guztiei oro har aplikatzekoak diren aginduak, zeinak pilotuta egon baitaitezke generoaren araberrako eraginari buruzko txostenak egiteko material lagungarrien artean, kontu juridikoei buruzko dokumentuan, hain zuzen.

3. LEGEDIA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA

4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako.

Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Politikaren Legea. 17/2008 Legea, abenduaren 23koa, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikakoa.

EAEKO Emakumeen eta gizonen berdintasunerako V Plana. IX: Legealdirako jarraibideak

Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren IX. Legegintzaren Programa Dokumentua.

ESTATUA

3/2007 Legea, martxoaren 22koa, Emakumeen eta Gizonen artean Benetako Berdintasuna lortzekoa.

35/2011 Legea, urriaren 4koa, Nekazaritza-ustategien Titulartasun Partekatuari buruzkoa.

Aukera-berdintasunaren Plan Estrategikoa (2008-2011)

Nekazaritza-garapenerako Plan Estrategiko Nazionala (2007-2012)

Landa-eremuan genero-berdintasuna lortzeko plan estrategikoa (2011-2014)

EUROPA

Kontseiluaren (EB) 1698 zenbakidun Erregelamendua, 2005eko irailaren 20koa, Landa Garapenerako Nekazaritzako Europar Funtsaren bitartez nekazaritza-garapenerako ematen den laguntzari buruzkoa.

Landa-garapeneko erkidegoko zuzentarau estrategikoak ezartzen dituen Kontseiluaren 2006/702/EEE Erabakia.

Landa-garapeneko erkidegoko zuzentarau estrategikoak ezartzen dituen Kontseiluaren 2006/144/EEE Erabakia.

Tokiko bizitzan emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko Europako Gutuna, Europako Udalerrien eta Eskualdeen Kontseilua (EUEK)

NAZIOARTEA

Emakumeen kontrako diskriminazio-era guztiak kentzeari buruzko Konbentzioa, Nazio Batuek 1979an hartutakoa.

Nazio Batuen 41/ 128 Ebazpena, Garapenerako Eskubideari buruzkoa (1986)

Rioko Adierazpena, Lurrari buruzko Mundu-mailako Gailurraren barrukoa (1992)

Genovako Adierazpena, Landa-eremuko Emakumeei buruzkoa (1992)

4. DATU-ITURRIAK

ADIERAZLEAK ETA DATUAK	ITURRIA	ALDIZKO TASUNA
<ul style="list-style-type: none"> • Landa-eremuan bizi diren emakume-portzentajea. • EAEn bizi diren emakume aktiboen portzentajea. • EAEko landa-eremuan bizi diren emakume aktiboen portzentajea. • Landa-eremuan bizi diren emakume okupatuen portzentajea. • Gizarte Segurantzaren kotizatzen ez duten landa-eremuko emakumeen portzentajea. • Landa-eremuan beste baten kontura lan egiten duten emakumeak. • Landa-eremuan bizi diren emakume langabetuen portzentajea. • Landa-eremuan eskuragarri dauden ekipamenduak eta zerbitzuak. • Emakumeek eta haien bikotekideek beren burua zaintzen ematen duten denbora. • Emakumeek eta haien bikotekideek beren burua zaintzen ematen dituzten orduak. • Etxeko lanean eta zainketan ematen duen denboraren portzentajea, sexuaren arabera. • Gidatzeko baimena duten emakumeen portzentajea. • Normalean gidatzen duten 26 eta 54 urte bitarteko emakumeen portzentajea. • Elkarteetan parte hartzen duten landako emakumeen portzentajea. 	<p><u>Emakumeak landa-ingurunean, 2011</u></p> <p style="text-align: center;">IKT</p>	<p>Lau urterik behin</p>

<ul style="list-style-type: none"> • 16 urteko eta hortik gorako biztanleri aktiboa Euskal Autonomia Erkidegoan, jardueraren, sektore ekonomikoaren eta sexuaren arabera. 	<p><u>Jardueraren araberako biztanleria Inkesta. 2008.</u></p> <p>EUSTAT</p>	<p>Urtekoa</p>
<ul style="list-style-type: none"> • Nekazaritza-ustiategietako titularrak. 	<p><u>Nekazaritza-errola (2009)</u></p> <p><u>Estatistikako Institutu Nazionala (INE)</u></p>	<p>Hamar urterik behin</p>
<ul style="list-style-type: none"> • Ustiategietako titular eta buru gazteak (16-29), sexuaren arabera, EAEn. 	<p><u>Baseritar gazteak. Nekazari eta abeltzain gazteen egoera sozioekonomikoa EAEn. 2010</u></p> <p><u>Euskadiko Gazteriaren Kontseilua</u></p>	<p>Aldizkota-sunik gabe</p>
<ul style="list-style-type: none"> • Maila ertaineko LHn matrikulatutako ikasleak, atalaren eta sexuaren arabera (2007/2008). • Goi-mailako LHn matrikulatutako ikasleak, atalaren eta sexuaren arabera (2007/2009). 	<p><u>Euskadiko gizon eta emakumeen egoerari buruzko zifrak. 2008ko txostena.</u></p> <p><u>Emakunde</u></p>	<p>Urtekoa</p>
<ul style="list-style-type: none"> • Maila ertaineko LHn matrikulatutako ikasleak, atalaren eta sexuaren arabera (2007/2009). • Goi-mailako LHn matrikulatutako ikasleak, atalaren eta sexuaren arabera (2007/2009). 	<p><u>Euskadiko gizon eta emakumeen egoerari buruzko zifrak. 2010eko txostena.</u></p> <p><u>Emakunde</u></p>	<p>Urtekoa</p>
<ul style="list-style-type: none"> • 16 urtekoak eta 16 urtetik gorakoak, okupatuak (milaka) sektorearen eta sexuaren arabera, EAEn (2010). • Maila ertaineko LHn matrikulatutako ikasleak, atalaren eta sexuaren arabera (2010/2011). • Goi-mailako LHn matrikulatutako 	<p><u>Euskadiko gizon eta emakumeen egoerari buruzko zifrak. 2011ko txostena.</u></p> <p><u>Emakunde</u></p>	<p>Urtekoa</p>

<p>ikasleak, atalaren eta sexuaren arabera (2010/2011).</p>		
<ul style="list-style-type: none"> • Organo kolegiatuak sailaren eta sexuaren arabera. Kideak eta buruak sexuaren arabera. 2008 	<p><u>Emakume eta gizonen presentzia Euskadiko erabaki-guneetan.</u></p> <p>Emakunde</p>	<p>Aldizkotasunik gabe</p>
<ul style="list-style-type: none"> • Landa-eremuan bizi diren pertsona okupatuen portzentajea, lanaldiaren eta sexuaren arabera. • Landa-eremuan bizi diren pertsona okupatuen jarduera-sektorea. 2009 • Landa-eremuko biztanleen kontratazio-mota, sexuaren arabera. • Gizarte Segurantzaz kotizatzen ez duten pertsonen portzentajea. • Gizarte Segurantzaz kotizatzen ez duten emakumeen eta gizonen portzentajea. • Bizi diren udalerritik kanpo lan egiten duten emakumeen portzentajea. • Elkarrekin parte hartzen emandako denbora, moten eta sexuaren arabera. • Lantokira joateko auto pribatua erabiltzeari dagokionez generoaren arabera dagoen aldea. 	<p><u>Diagnóstico de Igualdad de Género en el Medio Rural.2011.</u></p> <p>Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumeneko Ministerioa</p>	<p>Aldizkotasunik gabe</p>
<ul style="list-style-type: none"> • Nekazaritza-ustategietako titullarrak (hektareak) eta sexua. 	<p><u>El Libro Blanco de la Agricultura y el Desarrollo Rural. Las mujeres en el sector agrario y en el medio rural Español.2002.</u></p> <p>Mayoral, Roser eta Sánchez, Dolores. Bartzelonako Unibertsitatea.</p>	<p>Aldizkotasunik gabe</p>

5. ERREFERENTZIA-AGIRIAK

ESKULIBURUAK ETA GIDAK

- Genero-ikuspegia garapen proiektu eta programetan barneratzeko Gida metodologikoa. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea.1998.
- Buenas prácticas en desarrollo rural e igualdad. Dirección Rural. Ingurumen, Landa Eremu eta Itsas Eremuko Ministerioko Garapen Jasangarriaren Zuzendaritza Nagusia, 2009.
- Prevención de Riesgos Laborales. Agricultoras y Ganaderas. Guía práctica de prevención. Gaztela eta Leongo Junta. 2007.

IKERLANAK ETA TXOSTENAK

- Mujeres y salud en el medio rural de la CAE. Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saila. 2006
- Condiciones y Posición Social de las Mujeres del Medio Rural. Dirección General de Desarrollo Sostenible del medio Rural. Landa-inguruneko Garapen Iraunkorreko Zuzendaritza Nagusia, Madril, 2009.
- Mujeres empresarias en la España Rural. Soziologiako Nazioarteko Aldizkaria. LXV. bolumena, 48 zenbakiduna. 2007.
- Participación de las mujeres en el desarrollo rural. Un futuro cierto para la Europa rural. Europako Batzordea. Nekazaritzako Zuzendaritza Nagusia. 2000.

WEB BALIABIDEAK

- El enfoque integrado de género en el desarrollo rural. Una condición imprescindible. Actualidad LEADERen: Landa-garapenaren Aldizkaria, 35 zenbakiduna. Sabaté Martínez, A. 2007



EMAKUNDE

EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER